

«Abentura menditan»
gaiari buruzko sariketaren
lehen saria, euskaraz.



Kartxila
gainean haizkorri.

Kartxilako lepoko itun zaharraren bila

JEXUX AIZPURUA

Asolazeko kanping-een eguna argitzera doa. Trikuharri teilatura jausitako pinukoskolak basalez lurrundirik dira, gaueko oskarbiak ziprztindutako isurketei esker. Alboko bordako behor-zalditeriaren dunda-hotsek egunsentia jo dute eta hegazti goiztiararen loa eten. Piztia gautiarrak zirrituzuloetara doaz emeki-emeki, ilargi amandarearen ezpainetara ilunabarrarekin batera irazartzeko.

Mandigoizaleak ez du gehiagoren beharrik, munduko paradisu bakarti eta zorionekook ikusta eta ikertzeko; aski du egunaren jaiotza eguratsak nola lurrintzen duen ikustea, aski du gauari diosalka datorkeen eguzki-izpien lainoak zulatu-ezina nabaritzea, aski du errearen soinu-jarioa entzutea, aski du mendien izerdiaz soina bustitzea.

Bezperan prestatuturiko traste eta elikagaiak han datzate kanping-aren aurre-estalpean xuxen eta txukun gordeta; makuto beratuak badu gaur ere zer garraiatua, baina ez dio axolarik, udalehenean mendi eske den ardiaren antza, urduri-itxura ematen dio, ifar-haizearen dulundaldiak direla eta.

Kartxilako gailurra han egongo da atzoko eta biharko lekuan, musaje batez edo bestez, bortitzago edo leunago, pozkariozko edo histurez, biluzgorriz edo eztei-jantziz. Kartxilaren erakargarritasunaren berri ondo dakite Kakuetakoz zintzurrek, noraezean dabilen hodei zurixkak dakien bezalaxe; diotenez, goizero-goizero bialtzen omen du Auñamendi amak laino-aidez

mozorroturiko jagole bat, bere seme-alaba diren Lakura, Arlas, Ani, Txamantxoia, Ezkaurre eta beste hainbat eta hainbat lepo eta gailur behatu eta zaintzera, ez baitira alferrik Larra zaharraren kumerik kuttunenak.

Errokkariarrek aspaldi ikasi zuten larre finen bidea, eta harez gero ez dute hutsik egiten urtaroz-urtaro usadioaren mintzetan bizitzeko sasoiadirik onenak botatzeten...

Belagoako aterpera iristerako baziren goizeko zortzirak. Putreen hegadek eta beleen kua-kua-kuakoek gezurrezko sinfonia xume eta xalo bat ziruditen, bideari ekitea besterik ez zitzaigun gelditzen.

Txinda estu eta meharrok, bide izatera iristen ez diren luretenok, norantz garamatzaten nork jakin... Ez gara ordea beldur, ez baitugu mendiaren madarikazioarengan sinesten, aspaldiko adiskide mendi zaharrak ez digu muzinik eginen, joan zen neguaren bihotzean gau osoz lagundu bait genuen milaka urtetako bakardadean. Harez gero, inguratu ahala gure etorrera prantatzen arituko balitz bezala ikusi ohi dugu, bideetako maldak leunduz eta gure izerdia idortuz, Xüberoatik gora datorren aide xarmangarria gureganatuz.

Artzairik ez da oraingo, baina hor izango dira artaldean ondoren larre goxoen hautaketa orain eta gero, lehen eta orain, gero eta orain eginez.

Kartxilak azkenean ireki dizkigu urrezko atea sar gaitezen, gu xume eta beldurti herabetasunak jota gaude, baina bereha-



**Ahuntz-jendea
bideko zelatari.**

laxe lasatu zaigu barne-salda, mendiaren buru-buruan gure oinak tinkatzea lortu dugunean. Kartxila ez da gailurra soilik, bere oin eta soin guztia laztandu behar da mailarte eta harrate idorretatik abiatuz; bagadi-mugako isladetan saiatu behar da, harik eta Izabako Joan artzaia aurkitu arte.

Laino hertsia norabidea galerazi digu, eta hurrengo pausoa zer ager urduri goaz, orain zuhaitz bat, orain mailo bat, orain malkarra, orain sasarte, orain osina, baina Kartxilaren lurrin gozoak bere mendeko gauzkala konturatuz, etenik gabeko ibilian goaz, joan eta joanean.

Lainaidearen preso ginelarik, ustegabe-ko kuadroak datozkigu, motordun argazkimakinak hamaika flashaldi jaurtikitzen duen lez. Baina hamaikagarrenean makina gelditu egin da eta azken argazkia azaldu da: gizaki bat.

Lehen tupustadak oinak lurrari lotuarazi dizkigu; hala ere, gizaki haren begitarteak gure gihar eztenkatuak aise librarazi ditu bere onean utziz, Joan artzaia zen bere lau zakur bizi eta azti lagun zituela. Ahuntz-larrrua du estalki eta laupost bat egunetako bizar urdindua aurpegiaren babesgarri... Urdateko lepora doa presati hamaika bildots aurretik daroatzala eta erren digu:

—Kartxilaren besoetatik askatu nahi baduzle, eta zuen buruak korapiloetatik jaregin, jarrai nazazle eta mugarik ez den Kartxilaren larrerik gozoenetara eramango zaituztet.

Harantz goaz, Urdateko lepota du lekuak izena eta hantxe jarri gara zerbaiten zain egongo bagina bezala. Joan artzaiak mendeko zituen hamaika bildotsak, eta zaku-

ren zaunkazko hesian ondo bildurik zituela konturatuz, mendiaren beste hegalaria abixtu egin du behin eta berriz. Erne ditu bi belarriak eta begiak zorrotz, soinu arrotzen eta betikoen arteko muga ederki asko hausnartzen duelarik.

Txintxarri-hotsa da Ifarraldetik eta nahasian zakur-zaunka urruti eta bakana, nota gutxiko doinu bihozkorren tankera-koa, Garaxa da, Santa Graziko azken artzaintsa. Bertaratu arte ez gara konturatu emakumezkoa denik ere, zapi loratuz dakar burualdea, lepoko txuribeltzeko eta soineko argiaidekoa, aurremental oskarbidunezko hariz josirik, ilaje adastuan uztai urdinxka harat-honat duelarik.

Elkarren zakurrak berehalaxe egin dira adiskide. Gu ginen testigu. Inork ezer esan gabe, Garaxak nafar-lurra zapaldu du eta zekartzan beste hamaika axuriak Erronkarriruntz larreratu, baita Joanek ere, Bela-goatik gora ekarritako hamaika arkumeak

Lakurapeko pentzetara bidaliz. Alde banatarabereak uxatu dituztenean, Kartxilari begira zutunik, beste urtebeterako larrea eskatu diote elkarrekin. Anartean, axuri xüberotarrak Joanen artaldera bilduak izango ziren, baita izabar arkumeak ere Garaxarenera, urteroko trukaketa harrigarri hura mugarik ezaren eta Kartxilaren amatasuna behin eta berriz mugarritzen ari zen heinean. Ospakizuna amaitzeko, Joanek zurezko zintzarri bat eskeini dio Garaxari, honek bedar-iratzez eginiko lepoko berogarria eskuratzen zionarekin batera.

Beti artio apal batek eten du, ametsezko filme haren jarraia. Urruneko oskorriak euria iragartzen zuen eta gain behera abiatu gara, diruz eta urrez eros ez daitekeen zoriona gure azalaren zirrardan ezin gordez.

Asolazeko gure kanping-dendaren aitzinean su egin digu, Joanek eta Garaxak itzuleran argia izan dezaten.

